BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Comunicado de prensa**

**Ana Madariaga, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia valora las conclusiones de la abogada del Tribunal de Luxemburgo**

# "ESPERO QUE A PARTIR DE AHORA SE DEJE DE PONER EN CUESTIÓN EL CONCIERTO ECONÓMICO"

**Bilbao, a 8 de mayo de 2008.** Ana Madariaga presidenta de las Juntas Generales ha mostrado su satisfacción por las conclusiones de la abogada general del Tribunal de Luxemburgo en las que "avala las tesis defendidas por las instituciones vacas sobre su capacidad, al amparo del Concierto Económico, para llevar a cabo una política fiscal propia diferente a la del Estado español".

A juicio de la Presidenta de la Cámara Foral vizcaína "aunque las conclusiones no sean definitivas, la línea que marcan deberían de servir para cerrar el debate sobre la capacidad normativa en materia fiscal de las instituciones vascas y hacer recapacitar y desistir de sus planteamientos a aquellas instituciones, partidos políticos y sindicatos que la han puesto en cuestión de forma reiterada y que, según las conclusiones hoy conocidas, se quedan sin ningún tipo de argumentos".

"Si nos fijamos - añade Ana Madariaga- en las conclusiones de la abogada del Tribunal de Luxemburgo es claro que cumplimos las cuatro que ella expone: contamos con autonomía institucional, el Estado no interviene, las medidas que se adoptan por las instituciones vascas persiguen claramente fines de política económica propios y las instituciones asumen la merma de recaudación que la adopción de este tipo de medidas pueda suponer".

En opinión de la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, estas conclusiones "suponen un apoyo y un espaldarazo importante para el reconocimiento del sistema tributario vasco en el ámbito comunitario europeo. Confiamos en que se consolide también en el ámbito de los tribunales internos".

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Prentsa-oharra**

**Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak Luxemburgoko Epaitegiko abokatuaren ondorioen ganeko balorazinoa egin dau**

# "EKONOMI ITUNA AURRERATZEAN ZALANTZATAN EZ JARTEA ITXAROTEN DOT"

Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria pozik agertu da Luxemburgoko Epaitegiko abokatu nagusiaren ondorioak ezagutu diranean, bertan "Espainar estadukoaz bestelako zergapide-politika erabagi ahal izateko euskal erakundeek daukien gaitasunari buruz hemendik defendatutako tesiak berretsi egiten diralako".

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariaren eritxian, "nahiz eta ondorio horreek oraindik ez izan behin betikoak, euskal erakundeek zerga-araupideaz erabagiteko daukien gaitasunari buruzko eztabaidak bertan behera izteko balio beharko leukie eta hausnarketa sakona egin beharko leukie hori behin eta barriro zalantzatan jarri daben erakunde, alderdi politiko eta sindikatoek, ez jake-ta inolako argudiorik geratzen gaur ezagutu dana ikusi eta gero".

"Ikusten badogu —esan dau Madariaga andreak— zeintzuk diran Luxemburgoko Epaitegiko abokatu nagusiaren ondorioak, argi dago bertan aitatzen dituan laurak betetzen ditugula: erakunde-autonomia badaukagu; Estaduak ez dau parte hartzen; euskal erakundeek hartutako neurriok gure geure politika ekonomikoa egitea bilatzen dabe argi eta garbi; eta holako neurriak hartzetik eratorritako diru-bilketearen galerea bere gain hartzen dabe hemengoerakundeek".

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakari andrearen aburuz ondorio horreek "bultzada eta euspen handia emoten deutsie euskal zerga-sistemeari, Europako Batasunean autortua izan dedin. Hurragoko auzitegietan be autortua izateko balioko al dau".